

Funtsezko elkarteak

EkoPresa enpresak proiektu ekologikoak garatzen ditu, presak eraikitze material birziklatuak erabiliz. Gure helburua da ura atxikitzea eta lurra babestea modu merke, iraunkor eta jasangarri batean. Gure proiektuek tokiko hondakinak biltzen dituzte, ingurunea babesteko.

Hainbat bezero izango ditugu. Lehenik eta behin, udalak. Haien helburua higadura kontrola eta ura biltzea da. Guri presa txiki edo ertain ekologikoak erosiko dizkigute. Horrela, azpiegitura merke eta ikusgarria lortuko dute. Bestalde, nekazaritza eta abeltzaintza kooperatibak ere izan daitezke gure bezeroak, ureztatzeko ur gordailuak behar baitituzte. Gure presak edo biltegi txikiak erosiko dituzte, ura metatzeko eta ureztatzeko autonomia izateko. Gainera, GKEak eta ingurumen elkarteek ere erosiko digute, ekonomia zirkularreko proiektuak bilatzen dituztelako. Gure presak edo tailer praktikoak erosiko dituzte, gizarte eta ingurumen inpaktua lortzeko. Horrez gain, gobernu eta erakunde publikoak ere bai: klima egokitzapeneko neurriak behar dituzte. Gure proiektu pilotuak edo kontratu publikoak erosiko dituzte, irudi jasangarri eta berritzailea izateko. Azkenik, eraikuntza berdeko enpresek ere kontratatuko digute, ESG baldintzak edo ingurumen baldintzak bete behar baitituzte. Gure azpikontratazioa edo kit modularrak erosiko dituzte, kontratu publikoetarako puntu gehigarriak lortzeko.

Hornitzaileei dagokionez, artilea inguruko baserrietatik lortuko dugu dohainik. Gaur egun arazo larria dago artilearekin, izan ere, ez du garai batean zuen erabilera eta baserritarrek ez dakite zer egin horrekin. Askotan, zerbitzu pribatuak kontratatu behar izaten dituzte artilea bertatik eramateko, artilea erretzeko oso tenperatura altua behar baita eta ilegala baita erretzea baimen berezirik gabe. Horregatik, baserritarrengandik artile hori dohainik lortuko dugu. Bestalde, pneumatikoak ere dohainik lortuko ditugu hainbat kotxe tailerretara joanez, pneumatiko dendetara joanez... Erabilitako pneumatikoak erabiliko ditugu beste erabilera bat emateko. Material organiko gehienak naturan aurkituko ditugu eta materialenbat modifikatu behar badugu kanpoko enpresa bati eskatuko diogu hori egiteko. HDPE (lamina inpermeableak) eta geotextil protektoreak ere enpresa pribatuei erosiko diegu.

Gure bezeroekin harremanetan jartzeko, lehenik, bezeroak gurekin harremanetan jarriko dira sare sozialen bidez, erakustaldietan edo kontratu publikoen bidez. Gero, proiektuaren xehetasunez hitz egingo dugu: zein tamainako presa behar den, non eraikiko den eta zein material erabiliko diren. Kostuaren aurrekontua emango diegu, eta proiektua onartzen badute, lanari ekingo diogu.

Proiektua egiten dugun bitartean, bezeroari informazioa emango diegu aurrerapenaz. Eraikuntza faseak hauek dira: lekuaren garbiketa, pneumatikoen geruza jarri, lotu eta trinkotu, drainatzea jarri, azken estaldura eman eta landare egonkortzaileak jarri. Proiektua amaitutakoan, bezeroari erakutsiko diogu nola funtzionatzen duen presak.

Gure helburua da proiektuak komunitatearen parte-hartzearekin tokiko langileak erabiltzea ahal den neurrian. Horrela, proiektua ez da bakarrik ingurumenarentzat ona, baizik eta

tokiko ekonomiarako eta lanerako ere bai. Bezeroekin harremanak zuzenak eta argiak izaten saiatuko gara, proiektua denon gustukoa izateko.

Azkenik, presa hauen finantzaketa esan bezala bezeroengandik lortuko genuke, baina udalerrien eta komunitate autonomoen subentzioak lortzen saiatuko ginateke, izan ere, gure presek ingurumena eta natura errespetatzeaz gain, hauen kalitatea hobetzea da helburua.